AGINDUA, 2026ko urriaren 28koa Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernuko sailburuarena eta Etxebizitza eta Herri Agendako sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Finka-administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea.

2022ko martxoaren 21ean, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean, Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoak aurkeztutako eskaera sartu zen, Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideen Erregistroko arduradunak egindako errekerimendu bat zuzendu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 33.2 artikuluan eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu zen.

Finken Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko eskatu duenaren arabera, bi elkargo eskatzaileetako finka-administratzaileentzat eta, oro har, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat ekarriko dituen hobekuntzetan oinarritzen da sortze-eskaera.

Eskatzaileek beharrezkotzat jotzen dute Finka Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala eratzea, kontseilu hori osatzen duten profesionalen artean sinergiak bilatzeko, Euskal Autonomia

ORDEN de 28 de octubre de 2026 de la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y del consejero de Vivienda y Agenda Urbana por la que se acuerda la iniciación del procedimiento de elaboración del proyecto de decreto por el que se crea el Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas.

El 21 de marzo de 2022 tuvo entrada, en el Registro General del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, solicitud presentada por el Colegio territorial de Administradores de Fincas de Gipuzkoa y Álava, para la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores de Fincas. Tras subsanar un requerimiento por parte de la encargada del Registro de Profesiones Tituladas del País Vasco, se presentó toda la documentación exigida por el artículo 33.2 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas del País Vasco.

La solicitud de creación se sustenta en las mejoras que supondrá en el servicio tanto para las personas administradoras de fincas que forman parte de los dos colegios solicitantes como para las personas consumidoras y usuarias en general.

Las personas solicitantes entienden necesario dotarse de un Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas que permita la búsqueda de sinergias entre los

C/Donostia- San Sebastian 1– 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 01 85 06 | e-maila: elkarfun@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8TED-7G56
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: MARIA UBARRECHENA CID | 2026/10/28 09:08:37
SINATZAILE / FIRMANTE: DENIS ITXASO GONZALEZ | 2026/10/28 12:32:31

Erkidegoko Finka Administrazioaren lanbidearen ordezkaritza eta defentsa gorena izateko eta Eusko Jaurlaritzarekiko eta gainerako administrazio publikoekiko interkomunikazio-kanalak errazten laguntzeko.

distintos profesionales que lo conformen, que ostente la máxima representatividad y defensa de la profesión de la Administración de Fincas en Euskadi, así como que contribuya a facilitar los canales de intercomunicación tanto con el Gobierno Vasco como con las demás Administraciones Públicas.

Era berean, uste dute horrek erraztu egingo dituela komunikazio- eta informazio-bideak administrazio publikoek helaraz diezazkioketen arau-proiektuei buruzko informazioa emateko orduan, hobeto bideratuko dituztela proiektu horien aplikazioan sor daitezkeen gorabeherak, hobeto defendatuko dituztela gizartearen interes eta premia orokorrak, eta hobeto ordezkatuko dituztela finka-administratzailearen lanbidea eta haren kolektiboa.

Del mismo modo, entienden que ello contribuirá a simplificar los cauces de comunicación e información a la hora de informar sobre proyectos normativos que se le puedan someter por parte de las distintas Administraciones Públicas, a canalizar mejor las incidencias que pudieran suscitarse en la aplicación de estas, a defender mejor los intereses y necesidades generales de la sociedad y a representar mejor a la profesión de Administración de Fincas y a su colectivo.

Ildo horretan, Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 34.1 artikuluan oinarrituta, 2024ko urriaren 2ko txostenean, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak komenigarritzat eta interes publikokotzat jo du kontseilu profesional hori sortzea.

En este sentido, en aplicación del artículo 34.1 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales el Departamento de Vivienda y Agenda Urbana ha considerado conveniente y de interés público la creación del consejo profesional en cuestión, en su informe de fecha de 2 de octubre de 2024.

Profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenak Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan oinarritzen dira. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa dauka profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloan, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Las competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. En su virtud, se atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

Eskumen hori garatzeko eman zen Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea. Lege hori Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez garatu zen.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, que fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

18/1997 Legeak ezartzen du kontseilu profesional bat sortzeko xedapen orokor bat onartu behar dela.

La Ley 18/1997 señala que la creación de un consejo profesional requiere de la aprobación de una disposición de carácter general.

Prozedura hasi aurretik, eta bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluarekin eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluarekin, aurretiazko kontsultaren izapidea egin zen Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez, arauaren beharrari eta egokitasunari buruz herritarrek duten iritzia jasotzeko. Kontsulta horren emaitza Dekretua izapidetzearen aldekoa izan da.

Con anterioridad a este inicio, y de conformidad con el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y con el artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, se procedió al trámite de consulta previa a través de la sede electrónica del Gobierno Vasco para recabar la opinión de la ciudadanía acerca de la necesidad y oportunidad de la norma. El resultado de dicha consulta ha sido favorable a la tramitación del Decreto.

Agindu hau batera eman behar dute Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak, materialki eskuduna den sailaren titularra den aldetik, Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 34.2 artikuluan oinarrituz.

La presente Orden ha de ser dictada conjuntamente en aplicación del artículo 34.2 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales por la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y el consejero Vivienda y Agenda Urbana como titular del departamento materialmente competente.

Aurretik azaldutakoarekin bat etorriz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.3 artikuluan, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikuluan eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11.1.m artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau,

De conformidad con lo anteriormente expuesto, y en virtud de lo establecido en el artículo 26.3 de la Ley 7/1981, de 30 de junio de Gobierno, el artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, y el artículo 11.1.m del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Agindua ematea Finka-administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura has dadin, agindu honetan eta bere eranskinetan ezarritako helburuak eta irizpideak kontuan hartuta.

Bigarrena .- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza izendatzea prozeduraren instrukzioa egiteko ardura duen administrazio-organo gisa.

Hirugarrena.- Hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoen datan

RESUELVO

Primero. - Ordenar el inicio del procedimiento para la elaboración del proyecto de decreto de creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas, atendiendo a los objetivos y criterios establecidos en la presente Orden, así como a las directrices específicas contenidas en los Anexos a la misma.

Segundo. - Designar a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos como órgano administrativo al que se encomienda la instrucción del procedimiento.

.

Tercero. - Publicar la presente Orden de inicio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad y a los efectos de lo previsto en el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, de 30 de junio.

Vitoria-Gasteiz, a fecha de las firmas electrónicas

María Ubarrechena Cid

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILBURUA
LA CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Denis Itxaso González

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILBURUA
EL CONSEJERO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

I ERANSKINA
ANEXO I

Finken Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko dekretua egiteko arauak eta irizpideak, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, hasteko aginduan jaso beharreko edukia zehazten baitu.

Reglas y criterios para la elaboración de Decreto por el que se crea el Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas, en virtud de lo establecido en el artículo 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, que especifica el contenido que habrá de observar la Orden de iniciación.

1. Arauaren helburua eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoak elkargo profesionalen eta tituludun lanbideen arloan dituen eskumenak Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan oinarritzen dira. Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoari ematen zaio profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloko eskumen esklusiboa, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Eskumen hori garatzeko, Tituludun Lanbideen eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea eman zen. Lege hori profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez garatu zen.

Dekretu-proiektuaren bidez, Tituludun Lanbideen eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 41. artikuluan xedatutakoa bete nahi da, eta, ondorioz, Finka Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala eratu.

1. Finalidad y objeto de la norma

Las competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. En su virtud, se atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, que fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

A través de la elaboración del proyecto de Decreto se pretende dar cumplimiento a la previsión contenida en el artículo 41 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales y, en consecuencia, crear el Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas.

2022ko martxoaren 21ean, Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoek Finka Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala eratzeko aurkeztutako eskabideari sarrera eman zitzaion Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu saileko erregistro orokorrean, Profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 33.1 artikuluan oinarrituz.

El 21 de marzo de 2022 tuvo entrada, en el Registro General del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, solicitud presentada por el Colegio territorial de Administradores de Fincas de Gipuzkoa y Álava, para la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas, de conformidad con el artículo 33.1 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y Los Consejos Profesionales.

Finken Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko eskatu duenaren arabera, bi elkargo eskatzaileetako finka-administratzaileentzat eta, oro har, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat ekarriko dituen hobekuntzetan oinarritzen da sorrera.

La solicitud de creación se sustenta en las mejoras que supondrá en el servicio tanto para las personas administradoras de fincas que forman parte de los dos colegios solicitantes como para las personas consumidoras y usuarias en general.

Eskatzaileek beharrezkotzat jotzen dute Finka Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala eratzea, kontseilu hori osatzen duten profesionalen artean sinergiak bilatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Finka Administrazioaren lanbidearen ordezkaritza eta defentsa gorena izateko, eta Eusko Jaurlaritzarekiko eta gainerako administrazio publikoekiko interkomunikazio-kanalak errazten laguntzeko.

Las personas solicitantes entienden necesario dotarse de un Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas que permita la búsqueda de sinergias entre los distintos profesionales que lo conformen, que ostente la máxima representatividad y defensa de la profesión de la Administración de Fincas en Euskadi, así como que contribuya a facilitar los canales de intercomunicación tanto con el Gobierno Vasco como con las demás Administraciones Públicas.

Era berean, eskatzaileek uste dute horrek erraztu egingo dituela komunikazio- eta informazio-bideak administrazio publikoek helaraz diezazkioketen arau-proiektuei buruzko informazioa ematean, hobeto bideratuko dituztela proiektu horien aplikazioan sor daitezkeen gorabeherak, hobeto defendatuko

Del mismo modo, entienden que ello contribuirá a simplificar los cauces de comunicación e información a la hora de informar sobre proyectos normativos que se le puedan someter por parte de las distintas Administraciones Públicas, a canalizar mejor las incidencias que pudieran

dituztela gizartearen interes eta premia orokorrak eta hobeto ordezkatuko dituztela finka-administratzailearen lanbidea eta haren kolektiboa.

suscitarse en la aplicación de estas, a defender mejor los intereses y necesidades generales de la sociedad y a representar mejor a la profesión de Administración de Fincas y a su colectivo.

2. Bideragarritasun juridiko eta materialaren estimazioa

Agindu honen bidez agintzen den dekretu berria bideragarria da juridikoki eta materialki; izan ere, besteak beste, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen azken xedapen bakarrean aurreikusitako arau-garapena gauzatzea dakar.

2. Estimación sobre la viabilidad jurídica y material

El nuevo Decreto cuyo inicio de elaboración se ordena por la presente Orden es viable jurídica y materialmente, ya que supone, entre otras cuestiones, el ejercicio de desarrollo normativo previsto en la disposición final única de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales de Euskadi.

Hasierako azterketan ikusi denez, ez da oztopo juridikorik atzematen proiektatzen den araua indarreko esparru juridikoan txertatzeko, ez eta goragoko mailako arauekin batera existitzeko eta konektatzeko ere. Gainera, jardun horrek legez ezarritako ahalmenak, eskudantziak eta eskumenak erabiltzea dakar.

Del análisis preliminar efectuado, no se aprecian obstáculos jurídicos para la inserción de la norma que se proyecta en el marco jurídico vigente, así como, para su coexistencia y conexión con normas de rango superior. Además, esta actuación supone el ejercicio de facultades, atribuciones y competencias legalmente establecidas.

Dekretu-proiektua idazteko, oinarritzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 22. apartatuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenak, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen esparruan. Lege hori Profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuak garatu zuen.

El proyecto de Decreto se redactará en base a las competencias que atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi el apartado 22 del artículo 10 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, en el marco de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, que fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

Gainera, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikuluan, Jaurlaritzari

Además, de acuerdo con lo establecido en la disposición adicional décima de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, en el artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de

buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.n artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila da kontseilu profesionalen sorrera izapidetzeko eskumena duen saila, eta zuzendaritza sustatzailea toki-administrazioekiko harremanak eta administrazio-erregistroak izango dira, urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11.1.m artikuluan xedatutakoaren arabera.

junio, en el artículo 26.8 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y en el artículo 9.1.n del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, el departamento competente para tramitar la creación de Consejos profesionales es el de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, siendo la dirección promotora la de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos con base en lo dispuesto en el artículo 11.1.m del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

Bestalde, dekretua materialki bideragarria izango da, hura aplikatzeak hasierako agindu honetan azaldu diren helburuetarako estaldura baliagarria izatea ekarriko duelako.

Por otro lado, el Decreto será viable materialmente porque su aplicación supondrá disponer de una cobertura válida para los fines perseguidos que se han expuesto en la presente orden de inicio.

Aginduan aipatutako lege- eta erregelamendu-aginduak kontuan hartuta, eta proposatutako erregulazio-irtenbidearen justifikazioa kontuan hartuta, ezinbestekoa da xedapen orokor bat egitea kontseilu profesional interesduna sortzeko.

En atención a los preceptos legales y reglamentarios citados en la orden, y en consideración a la justificación de la solución regulatoria propuesta, es imprescindible elaborar una disposición de carácter general para crear el consejo profesional interesado.

Aukera ez-erregulatzaileak, praktikan, ekarriko luke erakunde eskatzaileak ez eskuratzea kontseilu profesionalei erreserbatutako ahalmenak, eta ez argitaratzea interes publikokotzat jo den arau-testu bat.

La alternativa no regulatoria supondría, en la práctica, que la entidad solicitante no adquiriese las facultades reservadas a los consejos profesionales y no publicar un texto normativo que, como hemos concluido, ha sido considerado como de interés público.

3. Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak

Arauaren xedea kontuan izanik, honek ez die eragiten beste arau-testuei.

Dekretua onartu eta argitaratu ondoren, batzorde kudeatzaile bat eratu beharko da, otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 35. artikuluaren arabera.

3. Repercusiones en el ordenamiento jurídico

Teniendo en cuenta el objetivo de la norma, esta no afecta a ningún otro texto normativo.

Una vez aprobado y publicado el decreto, deberá constituirse una comisión gestora de acuerdo con el artículo 35 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero.

4. Proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen eraginari, emaitzei edo bestelakoei buruzko ebaluazioak.

Agindu honi dosier bat atxikitu zaio, proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen inpaktuaren, emaitzen edo mota guztietako ebaluazioen berri ematen duena.

4. Evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que haya sido objeto la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella.

Se acompaña esta orden de un dosier adjunto que contiene las evaluaciones de impacto, de resultado o de todo tipo de las que hayan sido objeto la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella.

5. Eragindako herri-administrazioen aurrekontuetan, dagokion gaian eta, hala badagokio, dagokion jarduera-sektorean izango duen eragina.

Dekretua aplikatzeak ez du eragin ekonomikorik izango. Ez da beharrezkoa baliabide ekonomikorik bideratzea, ezta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak aurrekontu-kontsignazio gehigarririk ezartzea ere. Administrazio autonomikoaren aurrekontu-araubideari dagokionez, ez da aurreikusten araua indarrean jartzeak funtsezko aurrekontu-eraginik izango duenik, ez oro har, ez bereziki EAEko administrazioaren zerbitzura dauden langileei dagokienez, ez eta arlo horretan zerbitzu publikoak ematearen kostuari dagokionez ere.

5. Incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de la actividad de que se trate.

La aplicación del decreto no tendrá ninguna incidencia económica. No se precisa destinar ningún recurso económico, ni establecer consignación presupuestaria adicional por el Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno. No se prevé respecto del régimen presupuestario de la administración autonómica que la entrada en vigor de la norma tenga incidencia presupuestaria sustantiva con carácter general, ni singularmente respecto al personal al servicio de la administración de la CAE, ni en relación con el coste de prestación de servicios públicos en la materia.

Enpresa txikietan eta ertainetan izan dezakeen eraginari buruzko aurreikuspena banan-banan aztertuko da.

La previsión sobre el posible impacto en la pequeña y mediana empresa será objeto de análisis individualizado.

6. Izapideen eta txostenen zerrenda

a) Prozeduraren izapidetzea ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitakoa izango da, eta Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian xedatutakoa bete beharko da.

Arau-proiektuari aurretiazko kontsulta publikoa egiteko izapidea egiteko, 2023ko azaroaren 19ko Ebazpena iragarki-taulan argitaratu zen.

b) Prozedura hasteko agindu hau, 6/2022 Legearen 13. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie gainerako sailei, oharrak egin ditzaten ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruz.

c) Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak idatziko du proiektuaren testua, agindu honen edukia kontuan hartuta, eta lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko eskatzen diren kontsulten eta txostenen emaitzak kontuan hartuta. Hura idaztean, kontuan hartu beharko dira erregulazio onaren printzipioak (39/2015 Legearen 129. artikulua eta 6/2022 Legearen 14. artikulua). Testua bi hizkuntzetan idatzi behar da. Era berean, testua hizkuntzaren erabilera

6. Relación de trámites e informes

a) La tramitación del procedimiento será la prevista en la Ley 6/2022, de 30 de junio, y deberá observarse lo dispuesto en el Acuerdo de 11 de julio de 2023 por el que se aprueban las directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Órdenes y resoluciones.

El trámite de sometimiento del proyecto normativo a consulta pública previa se evacuó mediante la publicación en el Tablón de Anuncios de la Resolución de 19 de noviembre de 2023.

b) La presente orden de inicio, de conformidad con lo dispuesto en el párrafo 2 del artículo 13 de la Ley 6/2022, se publicará en el tablón de anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al resto de departamentos a fin de que puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

c) La redacción del texto del proyecto se efectuará por la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, atendiendo al contenido de esta Orden, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y, en su caso, al resultado de las consultas e informes que se soliciten para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista. En su redacción se deberán tener en cuenta los principios de buena regulación (artículo 129 de la Ley 39/2015 y artículo 14 de la Ley 6/2022). El texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe. Asimismo, el texto

ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi behar da.

d) Jarraian, eta proiektua ele bitan egin ondoren, generoaren araberako eraginari buruzko txostena idatziko da, arestian adierazitakoaren arabera, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa betez, eta bat etorriz Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean hartutako Erabakiarekin, zeinaren bidez, jarraibideak onartzen baitira generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko. Txosten hori Emakundera bidaliko da, txostena egiteko behar den gainerako dokumentazioarekin batera.

e) Ondoren, jarduketak Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoari helaraziko zaizkio, berariazko txosten juridikoa egin dezan, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11.1.m artikuluaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. eta 5.3 artikuluekin eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42. artikuluarekin lotuta.

f) Zuzendaritza-organo eskudunak 6/2022 Legearen 15. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako arau-inpaktuaren azterketaren memoria egin ondoren, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak aldez aurretik onartu beharko dute proiektua.

debe ser redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje.

d) Seguidamente, y una vez elaborado en bilingüe el proyecto, se redactará el informe de impacto en función del género conforme a lo indicado anteriormente, en cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y, conforme con el Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno el 21 de agosto de 2012, por el que se aprueban las Directrices sobre la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres. Este informe se remitirá a Emakunde, junto con el resto de documentación necesaria para que pueda elaborar su informe.

e) Posteriormente, se dará traslado de las actuaciones a la Asesoría Jurídica de la Dirección de Servicios del Departamento para la emisión del informe jurídico específico en función del artículo 11.1.m del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, en relación con el artículo 4 y 5.3 de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco y el artículo 42 del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

f) Una vez elaborada por el órgano directivo competente la memoria del análisis de impacto normativo indicada en el párrafo 3 del artículo 15 de la Ley 6/2022, el proyecto se someterá a la aprobación previa de consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y el consejero de Vivienda y Agenda Urbana.

g) Argitalpena egin eta hilabeteko epean, funtsezkoak ez diren txostenak ofizioz egingo dituzte —aldez aurretik eskatu gabe— hori egiteko eginkizuna erregelamenduz esleituta duten organoek, bitarteko telematikoen bidez.

g) En el plazo de un mes desde esa publicación, los informes que no tengan un carácter esencial serán realizados de oficio, sin solicitud previa, por los órganos que reglamentariamente tienen atribuida dicha función a través de medios telemáticos.

h) Izapide horrekin batera, eta hilabeteko epe berean, entzunaldi-izapidea emango da, 6/2022 Legearen 17. artikuluaren arabera.

h) De manera simultánea a este trámite, y en el mismo plazo de un mes, se dará el trámite de audiencia conforme al artículo 17 de la ley 6/2022.

i) Egingo den arauak honako txosten hauek bete beharko ditu:

i) Los informes a los que ha de someterse la norma que se va a elaborar, son los siguientes:

Funtsezkoak ez direnak:

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2 artikuluaren l) letran ezarritakoaren arabera, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2.1 artikuluari dagokionez.

- Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Gobernu Onaren eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12.1 n) artikuluan jasotako eskumenak betez.

De carácter no esencial:

- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, conforme a lo establecido en el párrafo l) del artículo 14.2 del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística en relación con el artículo 2.1 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

- Informe de la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno de Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, en ejecución de las competencias recogidas en el artículo 12.1 n) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

- Arestian aipatu den Emakunde txostena.

- Informe de Emakunde al que se ya ha hecho referencia anteriormente.

Futsezkoak:

De carácter esencial:

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, Ogasuna eta Finantzen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikuluaren arabera.

- Informe de la Oficina de Control Económico, de conformidad con el artículo 7 a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoa betez.

- Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi en aplicación de lo dispuesto en el artículo 3.1 c) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica de Euskadi.

- Dekretu-proiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora igorri baino lehen, testua Legebiltzarrera bidaliko da.

- Con anterioridad al envío del texto del Proyecto de Decreto a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, se remitirá el texto al Parlamento Vasco.

- Ez da Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenik eskatuko, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta lehen aipatutako ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren babesean, udalerrien eskumen propioei berariaz eragiten ez dien arau-proiektu bat delako..

- No se solicitará Informe de la Comisión de Gobiernos Locales de Euskadi, al amparo de lo dispuesto en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y artículo 21 de la Ley 6/2022, de 30 de junio anteriormente citada, al tratarse de un proyecto normativo que no afecta específicamente a las competencias propias de los municipios.

- Era berean, ez da egokia Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, 6/2022 Legearen 20. artikuluaren arabera, Lan Harremanen Kontseiluaren otsailaren 23ko 4/2021 Legearen 3.b) artikuluarekin lotuta.

- Igualmente, no procede informe del Consejo de Relaciones Laborales, de conformidad con el artículo 20 de la Ley 6/2022 en relación con el artículo 3.b) de la ley 4/2021, de 23 de febrero, del Consejo de Relaciones Laborales.

-

- Estatuaren eta Europar Batasunaren aurreko prozedurari dagokionez, adierazi behar da arlo horretan dekretu berri bat onartzeak ez duela eskatzen instantzia horiei jakinaraztea.

- Con respecto al procedimiento ante el Estado y la Unión Europea indicar que la aprobación de un nuevo decreto en esta materia no requiere de comunicación a ninguna de estas instancias.

- Azkenik, arauak bete behar dituen eta adierazi berri diren izapideak eta txostenak amaitu ondoren, azken espedientea osatuko da honako hauekin: hasteko agindua, aldez aurreko onarpen-agindua lehen testuarekin, arau-eraginari buruzko memoria, kontsultak, txostenak eta nahitaezko irizpenak. Espediente horri prozedura osoaren memoria labur bat gehituko zaio, eta hori guztia Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, onar dezan.

- Por último, y una vez finalizados los trámites e informes a los que se ha de someter la norma y que acaban de indicarse, se conformará el expediente final con la orden de inicio, la orden de aprobación previa con el primer texto, la memoria de impacto normativo, las consultas, los informes y dictámenes preceptivos. A este expediente se le añadirá una memoria sucinta de todo el procedimiento y se elevará todo ello a Consejo de Gobierno para su aprobación.

- Onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

- Tras su aprobación, se procederá a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

7. Subjektu eta erakunde adierazgarrienak identifikatzea

2022ko martxoaren 21ean, Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoak eskabide bat aurkeztu zuen Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean, Finken Administratzaileen Euskal Kontseilu Profesionala sortzeko, bat etorriz Profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 33.1 artikuluarekin.

Beraz, interesdunek eskatutako ekimena da, eta, beraz, subjektu interesdunak identifikatuta daude.

7. Identificación de sujetos y organizaciones más representativas

El 21 de marzo de 2022 tuvo entrada, en el Registro General del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, solicitud presentada por el Colegio territorial de Administradores de Fincas de Gipuzkoa y Álava, para la creación del Consejo Profesional Vasco de Administradores y Administradoras de Fincas, de conformidad con el artículo 33.1 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y Los Consejos Profesionales.

Se trata por lo tanto de una iniciativa a instancia de parte por lo que los sujetos interesados están identificados.

8. Itzulpen-teknika zehaztea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluaren eta lehen aipatutako 6/2022 Legearen 14.5 artikuluaren arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen berdintasuna bermatuz hizkuntza-bertsioak egitean. Agindu-proiektuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3 artikuluaren arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat eman beharko du argitaratu aurretik, bi bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

9. Instrukzioaz arduratzen den administrazio-organoa

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Gizarte Ekonomiako Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza arduratuko da prozeduraren instrukzioaz, kontuan hartuta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11.1.m artikuluak esleitutako eskumenak.

8. Determinación de la técnica de traducción

Conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, anteriormente citada, el texto debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El proyecto de orden deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción.

Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la Ley 6/2022, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de ambas versiones, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública.

9. Órgano administrativo encargado de la instrucción

El órgano encargado de la instrucción del procedimiento será la Dirección Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos de Economía Social, dadas las competencias atribuidas por el artículo 11.1.m del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

10. Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren arau-planean ez sartzeko justifikazioa

Dekretu-proiektua ez dago jasota Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren arau-planean; izan ere, alderdi batek eskaera arrazoitu baten bidez eskatuta lantzen hasi den xedapena da.

10. Justificación de no inclusión en el plan normativo del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno

El proyecto de decreto no se encuentra recogido en el plan normativo del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno. Dicha ausencia se justifica en que se trata de una disposición cuya elaboración se inicia a instancia de parte, a través de una solicitud motivada.

II ERANSKINA
ANEXO II

TXOSTENA, FINKA-ADMINISTRATZAILEEN EUSKAL KONTSEILU PROFESIONALA SORTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAK ERAGITEN DIEN XEDAPENEN INPAKTUARI, EMAITZEI EDO BESTELAKOEI BURUZKO EBALUAZIOAK JASOTZEN DITUENA

DOSIER EN EL QUE SE CONTIENEN LAS EVALUACIONES DE IMPACTO, DE RESULTADO O DE OTRO TIPO DE LAS QUE HAYAN SIDO OBJETO LAS DISPOSICIONES QUE SON AFECTADAS POR EL PROYECTO DE DECRETO DE CREACIÓN DEL CONSEJO PROFESIONAL VASCO DE ADMINISTRADORES Y ADMINISTRADORAS DE FINCAS

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, prozedura hasteko aginduari txosten bat erantsi behar zaio, non jasoko baitira aurreproiektuak eragiten dien xedapenen inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzko ebaluazioak.

De conformidad con lo previsto en el artículo 13.1.c) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a la Orden de Inicio del procedimiento se ha de adjuntar un dosier en el que se contengan las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto las disposiciones que son afectadas por el anteproyecto.

Kasu honetan, proiektuaren testu artikulatua *ex novo* egingo da, eta, beraz, ebaluatu edo aztertu daitekeen lehen aldia da; ondorioz, ezin da aurretiazko ebaluaziorik egin.

En este caso, el texto articulado del proyecto se va a elaborar *ex novo* y, por tanto, es la primera vez que puede ser objeto de evaluación o análisis, por lo que no pueden aportarse evaluaciones previas.

Testuak izango duen eraginari dagokionez, kontuan hartu behar da dekretua onartu eta argitaratu ondoren, kudeaketa-batzorde bat eratu beharko dela, otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 35. artikuluaren arabera.

En cuanto al impacto que tendrá el texto hay que tener en cuenta que, una vez aprobado y publicado el decreto, deberá constituirse una comisión gestora de acuerdo con el artículo 35 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero.

Arauaren ondorioa izango da dagokion kontseilu profesionala sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horretan dauden bi elkargo profesionalen eskaeraren ondorioz.

El efecto de la norma será crear el consejo profesional en cuestión, como consecuencia de la solicitud de los dos colegios profesionales existentes en la materia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Arauaren izaera dela eta, ez dago arauak eragindako beste xedapenik.

Debido a la naturaleza de la norma, no hay otras disposiciones afectadas por la misma.

Generoaren ikuspegitik duen garrantzia

Arauaren izaera dela eta, uste dugu horrek ez duela garrantzirik generoaren ikuspegitik; izan ere, egindako eskaeraren ondorioz, erakunde baten sorrera jaso baizik ez da egin nahi.

Hala ere, arauak adieraziko du kontseilu profesionalaren estatutuek eta funtzionamenduak emakumeen eta gizonen berdintasuna errespetatu beharko dutela.

Relevancia desde el punto de vista de género

Debido a la naturaleza de la norma, entendemos que esta no tiene relevancia desde el punto de vista de género, debido a que únicamente se trata de recoger la creación de una entidad como consecuencia de la solicitud realizada.

No obstante, la norma señalará que tanto los estatutos como el funcionamiento del consejo profesional deberán respetar la igualdad entre mujeres y hombres.

Euskararen ikuspegitik duen garrantzia

Xedapenaren edukia aztertu ondoren, adierazi behar da lege-proiektu honetan xedatutakoak ez duela eraginik izango euskararen erabileran.

Relevancia desde el punto de vista del euskera

Examinado el contenido de la disposición procede señalar que lo dispuesto en este proyecto de ley no tendrá incidencia en la utilización del euskera.

Enpresaren ikuspegitik duen garrantzia

Xedapenaren edukia aztertuta, adierazi behar da dekretu-proiektu honetan xedatutakoak ez duela eraginik izango enpresaren ikuspegitik.

Relevancia desde el punto de vista empresarial

Examinado el contenido de la disposición procede señalar que lo dispuesto en este proyecto de decreto no tendrá incidencia desde el punto de vista empresarial.